

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 12/2015

ERABAKIA, (...) ANDREAK, EGINIKO KONTSULTA BATI ERANTZUTEKOA. KONTSULTA HARTAN, INTERESDUNAK GALDETZEN ZUEN ZER ONDORIO ETIKO EKAR LEZAKEEN AHOLKULARITZA ENPRESA JAKIN BATEKIN KONTRATU PUBLIKO BAT SINATZEAK, JAKINIK (...) IZENEKO AHOLKU-ORGANOKO KIDE BAT AHOLKULARITZA ENPRESA HORRETAKO KOLABORATZAILEA DELA.

1.- 2015eko urriaren 14an Etika Publikorako Batzordeko (aurrerantzean, EPB) Idazkaritzaren postontzira igorritako mezu elektronikoko batean, (...) andreak, zera azaldu zuen: (..)ko (...) Legearen 27. artikuluan aurreikusi zen eta gaur egun (...)ko (...) Dekretuak arautzen duen (...)ko Aholku Batzordearen Jarduera Plana betetzeko, zerbitzu-kontratu bat egin beharra dagoela, (...) ikuspuntutik monitorizatuko dituen tresna bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzeko.

2.- Haren esanetan, lizitaziora aurkeztutakoen artean (...) izeneko aholkularitza-enpresa batek lortu du «baloraziorik onena» –mezuak ez du zehazten prozedura irekia, murriztua edo negoziatua erabili den–, eta enpresa horren giza taldean, «proiektuaren erantzukide» gisa, (...) jauna ageri da, (...) kidea ere badena, «(...)ean» aditu gisa.

3.- Gertakarien kontakizun labur hori eginda, interesdunak galdetzen du ea EPBren iritzian «arazorik ba ote den kontratua sinatzeko».

Hori horrela, hauxe da EPB honek, 16.4 artikuluko bigarren idatz-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, hartu duen erabakia:

ERABAKIA:

I. AURREKARIAK

1.- Eusko Jaurlaritzak hainbat dokumentu eta akordiotan adierazi izan du etika publikoarekiko kezka, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten kideen eta kargu politikoen jarduketa etikoaren jokabide etikoarekiko kezka.

Horien artean, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onetsi izana, 2013ko maiatzaren 28an. Dokumentu hori sortu da, hain zuzen ere, «politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek erakundeengan konfiantza berrezartzeko» nahiaren ondorioz.

2.- Ondoren, Eusko Legebiltzarrak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea onetsi du. Lege horrek EPBren esparru subjektiboa zabaltzen du, EAEko sektore publikoko kargu publikodun, behin-behineko langile eta zuzendaritzako langile guztiengan eragiteko asmoz.

II. kapituluan, «kargu publikodunen jokabideari» buruzko hainbat printzipio orokor jasotzen dira. Osotasunaren eta gardentasunaren (5. art.) inguruan egituratuta daude, zehazki, hiru arlotan: jokabide indibiduala (6. art.), erakundeen kalitatea (7. art.) eta herritarrekiko harremana (8. art.).

3.- Printzipio horien nahiz EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabideen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, azken horretan aurreikusi zen, 16.3 paragrafoan, EPB bat eratzea. Besteak beste, «kargu publikoek eta parekatuek eginiko kontsultak ebazteko eta beste edozein instantzia egiteko» gaitu zen, EJK aplikatzearekin lotuta.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKOA

1.- Asko dira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean (JKIGL) eta Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodean (EJK) Euskadiko sektore publikoko kargu publikodunen eta parekatuen kasuan gerta daitezkeen interes gatazkak diziplinatzea xede duten aginduak.

2.- JKIGLa haiez ari da bere 9. artikuluan, zera dionean: «Interes-gatazka izango da lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo zuzeneko senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan». Eta halakoak saihesteko, 10. artikulua kargu publikodunei «beren interesak agertzen edo bultzatzen diren» jarduera, erabaki edo ekimenetan «parte ez hartzeko» beharra ezartzen die (1. paragrafoa), baita «zenbait enpresa, sozietate edo erakunderen interesak ukitzen dituzten» gaien ezagutzan «ez parte hartzekoa» ere, «baldin eta beren zerbitzu-harremana hasi aurreko bi urteetan enpresa, sozietate edo erakunde horietako zuzendaritza- edo gobernu-organoetan kargu publikodun gisa izan badira» (2. paragrafoa).

3.- Modu bertsuan, EJKak bere 11.2 paragrafoan zera ezartzen du: «Goi-mailako kargudunek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean sortzen dira interes-gatazkak». Jarraian zehaztu egiten du zein kasutan ez duten beren eskumeneko gaien ebazpena ezagutu behar, ez hartan esku hartu edo parte hartu behar. Eta argitzen du eginbehar hori, esku ez hartzearena, ezer erabakitzeko edozein prozesutara hedatzen dela «prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero».

4.- Bi kasuotan, nolana ere, aplikazio-eremuan sartzen diren kargu publikodunei eta parekatuei soilik aplikatu behar zaizkie interes-gatazkarik ez gertatzeko ezarritako jarraibideak. JKIGLak «lege honek obligatutako subjektuak» aipatzen ditu, eta ez esku hartzeko eginbeharra «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko kargu publikodunetara» mugatzen du. EJKak, bestalde, zehazten du «beti saihestu beharreko interes-gatazka posibleei lotutako jokabideak» «kargu publikodunei» soilik eragiten diela, eta «kargua bete bitartean» baino ez (11.3 paragrafoa).

5.- Esku artean dugun kasuan, EGBLaren 27. artikulua dioenez «(...)» erazteko «(...) inguruan aholku eman eta hori aztertzeaz» arduratzeko eratu den (...) aholkularitza-organoko kideetako batek, organo horren jarduketa-programa definitzen zuzenean parte hartu eta gero –hain zuzen ere, «(...)an aditua» den heinean izendatu zuten, izendapena egiteko (...)eren zuzendariak (...)an eman zuen Erabakian azaldu zenez–, esleipenduna izateko aukera du, lizitaziora aurkeztutako «proiektuaren erantzukide» gisa, Euskadiko (...) (...)ikuspuntutik monitorizatuko dituen tresna bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzeko egingo den zerbitzuen kontratuan. Kointzidentzia subjektibo hori ez da ezkututzen; are gehiago, argi eta espresuki adierazten da aholkularitza-enpresak aurkeztutako proiektuan pertsona horrek atxiki duen lan-profilean, hitzez hitz azaltzen baita «gaur egun (...) batzordeko kidea» dela.

6.- Kointzidentzia subjektibo hori –hots, (...)rako kide izatea eta, aldi berean, Euskadiko (...) (...)ikuspuntutik monitorizatuko dituen tresna bat diseinatu, abian jarri eta ebaluatzeko (...)ak berak deitu duen kontratu publikoaren esleipena lortu nahi izatea «proiektuaren erantzukide» gisa– ez da JKIGLaren edo EJKaren xedapenen mende dagoen kargu publikodun batengan gertatu. Hain zuzen ere, pertsona hori ez da ageri martxoaren 31ko 39/2015 Dekretuan onartutako kargu publikodunen katalogo eguneratuan. Administrazioarekin duen lotura (...) batzordean «(...)ean aditu» gisa duen parte-hartzera mugatzen da. Ez zaizkio aplikagarriak, beraz, interes-gatazkei buruzko xedapenak. Eta ondorioz, ez dute lotzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen

(aurrerantzean, SPKL) 60. artikulua g) eta h) hizkietan «dena delako autonomia erkidegoaren arauak» aipatzean ezartzen diren kontratatzeko debekuek.

7.- Ez pentsa, hala ere, kontu horri lagunkeria-kutsurik batere hartu ezin zaionik; eta, susmoa egia izatea gertatuz gero, nahikoa motibo izan daiteke, kontratazio publikoak sustatzen dituen erakunde horren irudia eta izen ona likisteko. Administrazioari kontratu bateko zehaztasun teknikoak prestatzen laguntzen eta aholkularitza ematen dion pertsonak lizitazioko «proiektuaren erantzunkide» gisa kontratu horren esleipendun izan nahi izatea ez dago herritarren artean mesfidantza edo oker ustea piztetik salbu. Aitzitik, ez harritu iritzi publikoan errezeloa eta mesfidantza eragiten badu.

Gure kasuari zuzenean aplikagarria ez bazaio ere, SPKLaren 56.1 artikulua argi eta garbi azaltzen du ezin izango dutela lizitazio publikoetan parte hartu «zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten jardun duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia askea mugatzen badu edo pribilegiozko tratua eragin badezake gainerako enpresa lizitatzailerikiko». Garbi dago arau horrek zer lortu nahi duen: dena delako kontratu publikoaren zehaztasun teknikoak osatzen lagundu duen inork ezin izatea -zuzenean edo zeharka- bere asmoen alde egin, prestatzen lagundu duen kontratu hori lortzeko lehian parte hartuz; aukera hori errotik moztea.

8.- Guk zer irizten diogun jakiteko azaldu diguzuen kasuan, ez dira esleipendun bakar baten eskuetara joan daitezkeen segidako bi kontratazio, ez dira bat bestearen atzetik eginak -bata, prestaketarako; eta bestea, behin betikoa-. Gogoan izan, ordea, SPLko 56.1 artikulua kointzidentzia subjektiboa ekidin nahi duela; eta ez da zaila gure kasu hau kointzidentzia horien soka berekotzat jotzea. Gure ustea da egin nahi den kontratazio hori erraztea edo ahalbidetzea EJKko 6.1 paragrafoan datorren aginduaren aurkakoa izan litekeela. Han jartzen duenez, goi-kargudunek eta parekatuek "ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer". Azaldu dugunez, (...)ako kideari ezin zaio hori aplikatu, nahiz eta teknikoki prestatzen parte hartu duen kontratua lortu nahi izan; baina bai kontsulta egin duenari, hau da, (...)ari, hari baitagokio, (...) Dekretuko 18.2 artikulua arabera (dekretu horretan dago ezarrita (...)ren egitura organikoa eta funtzionala), "(...)ren zerbitzuak bultzatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea arlo hauetan: ekonomiaren eta finantzen kudeaketa; ondarearen eta aurrekontuaren kudeaketa" (b letra), eta hari baitagokio orobat "ekonomiaren eta finantzen arloko xedapenak, egintzak, kontratuak eta espedienteak izapidetzeko eta erregistratzeko barne-prozedurak prestatzea" (d letra); hark bai bete behar ditu JKIGL eta EJK; eta, gainera, kargudun publikoen katalogo eguneratuan ere agertzen da.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

ERABAKIA:

Alderdikeria- edo lagunkeria-susmorik batere egon ez dadin, kontsulta-egileari proposatzen diogu administrazio-kontratua ez diezaiola enpresa horri esleitu, (...)ko kidea bi lekuetan agertzen delako: kontratua eragin duen jarduera-programa prestatzen parte hartu zuen "(...)eko aditu" modura; eta, enpresaren eskaintzan, "proiektuko arduradun-kide" modura ageri da.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio

Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 26a